



❖ UDALA

Iñauteriak prestatzeko bilera

Udalak eta Jai Batzordeak antolatuta, inauteriak prestatzeko lehen bilera parte-hartzailea izango da gaur Biterin, 19:00etan hasita. ||

Hirigintza Batzordea

Hirigintza eta Ingurumen Batzordeko bilera izango da gaur. Besteak beste, honako gaien inguruan hitz egingo dute: herriko zenbait kaletara sartzeko kontrol sistema arautzeaz, Etxeberri auzoa berrurbanizatzearaz eta Goiz Eguzkiko bolatokia estaltzeaz. Bilera 18:00etan. ||

❖ KAXKO ELKARTEA

Urteko Batzarra, ostegunean Biterin

Kaxko Auzo Elkarteak urteko batzarra egingo du ostegunean Biterin. Bertan hitz egingo dute urteko balantzeari buruz eta txotx denboraldiari buruz, besteak beste. Zikuiagako papelerekin dauden usain eta soinu arazoei buruz ere hitz egingo dute. Hitzordua, 20:00etan, Biterin. ||

❖ GURE ETXOLA

Sukaldaritzako ikastaroa

Gabonetako jakiak prestatzen ikasiko dute gaur eta bihar, Gure Etxola emakume zentroan izango den sukaldaritza ikastaroan. Ikastaroa Iñaki Ubiria sukaldi ospetsuak emango du, 17:00etatik aurrera. ||

❖ MUSIKA

Eduardo Baranzanoren kontzertua gaur

Gaur Eduardo Baranzano gitarra-jole uruguayarraren kontzertua izango da Biterin. Kontzertua arratsaldeko 17:00etan hasiko da. ||

Telazko poltsak erabiltzeko kanpaina martxan da, eta dendariak hasi dira dagoeneko bezeroen artean banatzen

2010garren urteko urtarrilaren 1etik aurrera, banatzen diren plastikozko poltsak kobratzen hasiko dira dendariak.

UDALAK eta Berriak Elkarrekin elkarlanean, telazko poltsak erabiltzeko kanpaina jarri dute martxan.

Kanpainaren helburuetako bat da plastikozko poltsa gutxiago erabiltzea, eta ondorioz, ingurumenean duten eragina murriztea. Beste helburuetako bat da, 2010eko urtarrilaren 1etik aurrera banatzen diren plastikozko poltsak kobratzen hastea.

Hernaniko 82 komertzio hartu dute parte

Kanpaina aurrera ateratzeko ezinbestekoa izan da herriko komertzioen partehartzea. Kanpaina aurkezteko prentsaurrekoan azpimarratu zuten, ezin hobeto erantzun dute. Oraingoz 82 dendarik hartuko dute parte kanpainan eta Udalak 80 poltsa eman dizkie bakoitzari. Orain, kanpainaren hasieran, dendariak poltsa horietako batean emango diote erositakoa bezeroari.

Leialtasuna sarituko da

Kanpainaren helburua da bezeroak telazko poltsak erabiltzera ohitzea. Beraz, telazko poltsa erabiltzen duten bezeroei, edota karritoa edo ohizko erosketetako poltsa erabiltzen dutenei zozketa batean parte hartzeko txartelak emango zaizkie. Zozketak 2009an zehar egingo dira eta lehenengoa urtarrilaren 30ean egingo da. Aurreneko zozketa honetan, 1.000 euroko balioa duten 3 lote zozketatuko dira. Loteak ikusi nahi dituenak, aukera



Goian poltsen inguruko kanpainaren aurkezpena.



Kanpainan parte hartuko duten dendariak.

izango du ostiraletik aurrera Kale Nagusian dagoen Ibañez dendan. Handik aurrera, zozketak, hilabeteroko azken ostiraletan egingo dira eta sariak 100 euroko eros txartelak izango dira. Sari horiek kanpainan parte hartu duten dendetan gastatu ahal izan-

go dira. San Joanetan berriz, zozketa berezi bat egingo da, nahiz eta saria oraindik zehaztu gabe dagoen.

Publizitatea paneletan

Kanpainan parte hartzen ari diren dendek pegatina bat eta marko digital bat dute.

Bertan, kanpainaren inguruko informazioa eta honen inguruko publizitatea agertzen dira.

Horrez gain, propaganda orriak ere banatuko dira establezimendu ezberdinetan: ileapaindegietan, hortz kliniketan eta abar. ||

AMAIA
ARRANDEGIA
KARTINER
ITSASMAK
FRESCO ETA
IZOZTUAK
Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

ETXEBIZITZA PROMOZIO BERRIA
ASTIGARRAGA-ERGOBIAN
2 ETA 3 LOGELATAKO
ETXEBIZITZAK SALGAI
(Oloren hasiera datarren udaberrian)
Informazio gehiago:
943 21 16 44 - 629 42 32 91 - 659 67 95 40

INAKI ALKORTA
barne diseinua
dekorazio proiektuak
gremio koordinaketa...

ERAKUSKETA BERRITZERA GOAZELA ETA
LIKIDAZIOA
%30 - %40_{ko}
DESKONTUA
Kardaberaz 39
www.inakialkorta.com
943 386431

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Móbil: 653 74 10 97
20120 Hernani

☎ TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 – 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 ● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103 + FARMAZIAK ● Egunez: Bulnes Etxeberri 1 - 943 557738 ● Gauzez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022

EGURALDIA
GAUR Eguraldiak okerrera egingo du. Fronte bat iritsiko da gaur eta lainoak eta euria ekarriko ditu. Tenperaturari dagokionez, goizeko lehen orduak hotzak izango dira.
BIHAR Eguna pattal hasiko den arren, orduak aurrera joan ahala hobetzeko joera izango du. Tenperaturak behera egingo du pare bat gradu.



Aurtengo nobedadea bertso bazkari musikatua izango da.

Haurrentzako saioarekin hasiko da gaur Bertsolata

Haurrentzako saioaz gain, aurtengo bertsolatan ere era guztietako ekitaldiak izango dira: Urte Zaharreko erronda, bertso jaialdia eta nobedadea den bertso bazkari musikatua.

HAURRENTZAKO saioak emango dio hasiera gaur aurtengo Bertsolatari. Aurtengoa joan den urtekoa baino laburragoa izango da, baina, hala ere, bertsoekin gozatu nahi duenak izango du nahiko aukera.

Urtero bezala, lehen saioan haurrak izango dira nagusi. Lehen ekitaldi honetan parte hartuko duten bertsolariak Jon Maia eta Agin Rezola izango dira. Haurren saioan gai jartzeko modua berezia izango da, marrazki bidez egingo baita. Gaiak jartzen arduraduna Unai Gaztelumendi izango da.

Hitzordua gaur, 14:30etan Biteri kultur etxean.

Beste hiru ekitaldi

Haurrentzako saioaz gain, aurtengo bertsolatak beste hiru ekitaldi ere izango ditu, guztiak Gabonen bueltan.

Bigarren ekitaldia Bertso Jaialdia izango da, abenduaren 27an, 22:30etatik aurrera. Jaialdian parte hartuko duten bertsolariak honakoak izango dira: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Igor Elortza, Sustrai Colina, Unai Gaztelumendi eta Xabier Legarreta. Gaiak jartzeaz Joxe Luis Urdangarin arduratuko da.

Hirugarren ekitaldia berriaz, Urte Zaharreko erronda izango da. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera arituko dira herrian barrena.

Bertsolatak azken ekitaldia bertso bazkari musikatua izango da, aurtengo nobedadea. Urtarrilaren 3an izango da, eguerdiko 14:00etan. Bazkarian parte hartuko duten bertsolariak honako hauek izango dira: Unai Iturriaga, Unai Agirre, Maialen Lujanbio eta Iker Osa. Tramaz Eñaut Agirre arduratuko da eta musika jartzeaz berriaz, Imanol Kamio eta Aitor Atxeaga. II

Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA zenbakia eta telefonoa • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

IPC-aren engainuak

Berez, herritarrok ez dakigu asko IPC-ari (Indice de Precios al Consumo) buruz; ez zertan oinarrituta dagoen, eta ezta ere nola kalkulatu diren hilabetero jasaten ditugun prezio igoera edo jaitsierak. IPC-aren datuak hilabetero kaleratzen dira, 10garren egunean gutxi gora behera, eta pasatako hilabetearen ingurukoak izaten dira. Teorian, datu horiek fidagarriak izan behar harko lukete, baino egunero-

ko bizitzan prezioek jasaten duten igoera edo jaitsiera kontuan izanez gero, konturatu gara ez dutela bat egiten.

Hori gutxi balitz, orain gainera Espainiako Gobernuak krisi egoera bizi dugula onartu duenetik, indize berri bat asmatu dute, IPA (Indice de Precios Avanzados) deitu diotena. Biak konparatuz gero, gauza bera dela konturatu gara, datuak azpitik ematen baitira bietan. Niri erantzunik gabeko

galdera asko sortzen dizkit konparazio honek. Hala ere, garbi ikus daiteke kalkuluak beraiei komeni bezala egiten dituztela, eta gainera, gure interesen aurka. Erosketak egitera joanez gero, guztia geroz eta garestiago dago, eta gure politikoak ordea, geroz eta hutsago.

Hau kontuan izanda, oraindik ere, hau guztia petrolearen erruz dela entzuten jarraitu behar dugu.

Joan Sanchez Bolet
(*Erredakzioan euskeratua)

ELIZA

Formazio saioak gaur

Parrokiko pastoralzak formazio saioak antolatu ditu eta gaur liturgiaren historiaz arituko dira. Hitzordua arratsaldeko 20:00etan San Joan Bataiatzailearen parrokiko atetxikietan. II

ELKANO 17 EMAKUME ZENTROA

Luis Irizarren ikasleen sukaldaritza ikastaroa bihar, Xalaparta elkarte

Elkano 17ko emakume zentroak sukaldaritza ikastaroa antolatu du biharko. Ikastaroa ematen arduradunak Luis Irizar sukaldariaren ikasleak izango dira. Ikastaroa Gabonetako menuen inguruan izango da, bihar Xalaparta elkarte, arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara. II

Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

II URTEURRENA

Jesusa Aranburu Etxenike

2006ko abenduaren 18an hil zen, 89 urterekin

-Goian Bego-

Jesusa gure artetik joan zela II.urtea bete den honetan, senitartekook oroigarri meza eskaini nahi diogu eta bertara gonbidatzen zaituztegu ezagutu zenuten guztiak.

Urteurreneko meza, **BIHAR, OSTEGUNA, arratsaldeko 19:00etan**, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEA parrokian elizan. Aldez aurretik, mila esker.



Hernanin, 2008ko abenduaren 17an

IRAGARKI MERKEAK

Asteburuetatik, telefono arreta zerbitzurako, euskera menderatzen duen pertsona baten bila gabilta. Interesatuak kurrikuluma bidali maria@logikaline.com edo deitu **943336600 80:00-tatik 17:30-tara (Maria)**

Taberna salgai Hernaniko kaxkoan 60m2 + almazena 30m2. Deitu: **616 383 168**.

Alokatzeko: Pabiloi industrial berri-berria. 150 m2. Poligonoa: Txalaka Araneder (Astigarra). 943 33 05 16 (20:00etatik aurrera).

Etxe berria estrenatu ezazu, hemendik 18 hilabetera, 2 logela, aszensorea, 60m2 (249.000euro). Deitu: 671 124 594.

Etxeko konponketak egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak... Seriotasuna. Deitu: **616 886 660**.

BIDEA masajeak. Santa Barbara auzoa. Tel.: **656 78 64 15** (aurretik deitu).

Xanti Masajista. Kirol masajea, TP de Cyriax, kiropraxia, osteopatia xamurra, bioaktibadore neurologikoa, kinesiologia, reflexologia. Deitu: **943 33 07 35** (Lizeaga, 2 P- 1 B).

Yolanda estetika zentrua. Fotodepilazio berria, prezio egokituak eta pertsonalizatuak. Gaztetzeko tratamendua "Fotorejuvenecimiento", Antiacne tratamendua, "Manchas". Plataforma bibratzaila. Atzieta 2, behea. Tel. **943 55 32 78**.

Argia zentroa. Balneoterapia-spa, masajea, akupuntura, diafreoterapia, kiropraxia, errelejo ajustea eta berbrala, kromoterapia, drainaje linfatikoa... Antziola 39 (Mendi mendian, 2). **943 55 76 76**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta berbrala, reflexologia, auriculoterapia,... **943 33 28 94 - 626 80 76 33** (Agustindarren plaza, 4)

SANSONATEGI

Hernanitegi, Europa 11 - 943 33 15 77 - www.sansonategi.com

Abenduaren 20an afaria eta dantzaldia,
NARITZA taldearekin. Giro ederra!!
(Lisenzia alder aurretik egitea eskatuko da: 943 33 15 72)

Menua:
Ahorar konbinatuak
Pommar, Soteloak, Anisonea
Zakurri epelak
Lupia labean
Alpizuna lagunagarririk
Hedatu kranioa
Kafea, kupa purua... eta dantzara!

Zakoz !!

J A T E T X E

40 euro